

6. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA ESKAINTZEKO PROGRAMA

Gizarte Ekintzako Sailak genero indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko zerbitzua du eta honen barruan bai biktimen arretarako bai bortizkeriaren aurkako prebentziorako programa desberdinak garatzen dira.

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Programa honek **informazioa eta laguntza ematen dizkie genero indarkeriaren biktima izan diren pertsonari**, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzaren eta beste departamentu edo instituzio batzuen baliabideak erabilita. Programaren arduradunek kasu bakoitzaren diagnostikoa egin eta esku-hartze plan bat adosten dute biktimarekin, hainbat bitarteko erabil ditzakeena: laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa, laguntza ekonomikoa, hezkuntza mailako laguntza, kulturen arteko bitartekaritza eta bizileku baliabideak.

2022an, 227 pertsona berri, hau da, aurretik zerbitzuan artatu gabeak, artatu ziren:

- Indarkeria matxistaren biktimak: 179
- Familia barneko indarkeria: 12
- Sexu indarkeria: 29
- Beste kasu batzuk: 7

2022an programan sartutako indarkeria matxistaren biktimen artean, tratatu txar mota hauek hauteman dira:

Tratatu txar fisikoa	111
Tratatu txar psikologikoa	190
Tratatu txar ekonomikoa	23

Oharra: Emakumeek tratatu txar mota bat baino gehiago pairatu ohi dutenez, tratatu txarren batura handiagoa da laguntza jaso duten emakumeen kopurua baino.

227 kasu berriez gain, 290 pertsona gehiagori eman zaie arreta aurreko urteetan.

Beraz, guztira, 517 izan dira genero indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko programan artatu diren emakumeak.

Ondoko taulan, programara jo duten emakumeek 2022an jaso dituzten laguntzak eta baliabideak ikus daitezke:

Laguntza psikologikoa	175
Laguntza soziojuridikoa	31
Aholkularitza eta informazioa	227
Larrialdietarako etxebizitzak (udalarenak)	5
GFAREN etxebizitzak – Egonaldi labur, ertain eta luzeko harrera	8
Larrialdiko txekea	9
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza (*)	13
Emakumei laguntzea	31

(*) Laguntza hauez gainera, hala badagokie, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak izapidetu edo kudeatzen dituen gainerako diru laguntzak ere eskura ditzakete emakumeek (Gizarte larrialdietarako laguntzak, eta Lan Partekatuaren Planeko laguntzak).